

**AURREKONTUAREN PRINTZPIO NAGUSIAK
ETA AURREKONTU-ALDAKETAK**

**PRINCIPIOS GENERALES Y MODIFICACIONES
PRESUPUESTARIAS**

PRINTZIPIO OROKORRAK ETA AURREKONTU-ALDAKETAK: TRANSFERENTZIAK ETA BIRBANAKETAK

Gastuko aurrekontu-aplikazioetan ageri diren kredituak soilik erabiliko dira aurrekontua edo aurrekontu-aldaketak onartzean baimendu ziren xede zehatzetarako.

Era berean, ezin izango dira gastu-konpromisoak hartu, baldin eta horien zenbatekoak aurrekontuaren gastuen egoeran onartutako kredituen zenbatekoa gainditzen badu.

Gastuen aurrekontuaren kredituen kargura, soilik urte naturalean egingo diren eginbeharrak onartu ahal izango dira. Nolanahi ere, indarrean dagoen kredituei honako eginbehar hauek aplikatuko zaizkie:

- UPV/EHUko aurrekontuaren kargura ordaintzen diren langileen atzerapenak kitatzearen ondoren geratzen direnak.
- Aurreko ekitaldietan behar bezala baimendutako gastu-konpromisoetatik eratorritakoak.

Kredituen lotura

II. eta VI. kapituluetakako kredituek kapitulu mailako lotura dute, Sailkapen Organiko eta Funtzional beraren barruan.

Kanpo-finantzaketari dagokionez, irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kontratuak egiteko eta prestakuntzarako bekak emateko, lotuta egongo dira finantzaketa mota hori jasotzen duten I. eta IV. kapituluetakako kontzeptu ekonomikoak; betiere, Sailkapen Organiko eta Funtzional beraren barruan.

AURREKONTU-ALDAKETAK

Kreditua sortzea, diru sarreraren bidez

Hasierako aurrekontuan aurreikusi gabeko kreditu bat eskuratzearen ondorioz izandako diru sarreraren bidez kreditua sortzea dagokien Organikoen proposamenez planteatuko da, eta horrelakoetan aurrekontu-orekako printzipioari eutsiko zaio, beti.

- Sarrerak aldatzea: aurkeztutako dokumentazioaren bidez egingo da, eta, haren izaeraren arabera, Kontabilitate Zerbitzuak egokitzen jotzen duen diru sarreraren aurrekontu-aplikazioan sartuko da.
- Gastuak aldatzea: organikoak berak jakinaraziko du zer aurrekontu-aplikaziotan egingo den kreditu-gaikuntza.

Diru sarreraren bidez kreditua sortzeko espedientearekin batera, aldaketaren beharra justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da (erabakia, kontratua, hitzarmenak...).

Hiru hilabete behin, gaitu diren kredituen zerrenda zehatza aurkeztuko zaio UPV/EHUko Ekonomia Batzordeari.

Kreditu-transferentziak

1. **Kreditu-transferentziak egitea, eragiketa arrunten kontzeptuen eta kapital-eragiketen kontzeptuen artean** (Trainera prozedura: beste aurrekontu-transferentzia batzuk).

Eragiketa horiek Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetzari eskatuko zaizkio, Gune Organikoek hala proposatuta eta dagokion organika arduradunaren baimena erantsita.

Baldin eta kredituaren jatorria Errektoreordetza batek edo Zerbitzu Zentraletako organoren batek agindutako aurrekontu-aldaketa bat bada, arduradun funtzionalaren baimena beharko da. Izapide horretatik salbuetsita daude honako eskaera hauek:

- Jatorrizko eta helmugako funtzioak 016 eta 017 dituztenak (kreditua birbanatuz).
- 3910 organikoko I. kapitulurako transferentziak eta 011 eta 030 funtzionalak.

2. **Kreditu-transferentziak egitea, gastu arrunteko eragiketetatik kapital-gastuko eragiketetara atxikitako finantzaketakoak ez diren kredituetarako** (Trainera prozedura: transferentziak KGr).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2006ko ekainaren 26an erabakitakoa betez, honako transferentzia mota hauek bereizten dira:

- a) 10.000 €-ko edo hortik beherako transferentziak.

Eragiketa horiek Gune Organikoen proposamenez eskatuko zaizkio Gerentziari, justifikatzeko txosten bat erantsita. Eskaera Ekonomia Batzordeak eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko dute. Gero, Gizarte Kontseiluari helaraziko zaio, hark balioetsi dezan.

- b) 10.000 €-tik gorako transferentziak.

Eragiketa horiek Gune Organikoen proposamenez eskatuko zaizkio Gerentziari, justifikatzeko txosten bat erantsita. Lehendabizi Ekonomia Batzordeak eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko dute eskaera, eta gero Gizarte Kontseiluak.

Transferentzia horiek eskatzeko epea irailaren 30ean amaituko da

Denbora muga honetatik, eragindako finantzaketa duten organikoen transferentziak salbuesten dira, baldin eta errektoreordetzan egokiak baimentzen badu eta organikak aribideko ekitaldiaren Abenduak 31-ren ondoren bukatzen badu.

3. **Kreditu-transferentziak egitea, kapital-gastuko eragiketetatik gastu arrunteko eragiketetara.**

Aurreko b) atalean azaldutako izapide berberei jarraitu beharko zaie, Eusko Jaurlaritzak baimena eman ondoren. **Transferentzia horiek eskatzeko epea irailaren 30ean amaituko da**

Kreditu-birbanaketak

Aurrekontu-hornidurak gune bat edo batzuetatik beste bat edo batzuetara aldatzea da, sailkapen ekonomiko eta funtzional berean.

Aukera hori erabiliko da ekitaldian zehar gune organikoetara kreditua emateko; baldin eta, deialdi, kontratu, formula bidezko banaketa eta antzekoen mende egonik, ezezaguna bada gune bakoitzari dagokion zenbatekoa.

Era berean, birbanaketak erabiliko dira kapitulu-mailan, II. kapituluko kontzeptuetara edo alderantziz lotzen diren I. kapituluko (Langile-gastuak) kredituak eskualdatzeko.

Ikerketa Zerbitzu Orokorrek 3. motako birbanaketak (barne-fakturazioa) erabili ahal izango dituzte sailei ematen dizkieten zerbitzuak kobratzeko.

Birbanaketa horiek errektoreordetzek, gerenteordetzek, liburutegiek eta zerbitzu zentralek erabili ahal izango dituzte.

Gerakinak sartzea

Proiektu eta azpiegiturako kredituak gauzatu ez direnean hurrengo ekitaldian sartuko dira, hasieran esleitu zitzaien gune funtzionalen esku egongo diren saldoen modura.

Kanpoko baliabideez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak aurrekontuan sartuko dira.

Era berean, abenduaren 1a baino lehen hartutako konpromisoetara (AD) dagozkien eta justifikatutako arrazoiengatik egin ezin izan diren gastuei dagozkien gauzatzeke dauden kredituak aurrekontuan sartuko dira. Sarrera horiek Kontabilitate eta Aurrekontuetako Gerenteordetzari eskatuko zaizkio, dagokion itxiera-aginduan ezartzen den epean.

Kredituen soberakin espezifikoek espezifiko izateari utziko diete, berez zegokien jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzean.

Salbuespen gisa, kreditu-saldoak sartu ahal izango dira, esleitu gabe dauden baina esleitzeko prozesuan diren kontratueterako.

Errektoreak edo hark izendatutako pertsonak hurrengo ekitaldiko aurrekontura kreditu-gerakinak sartzeko baimena emango du, horien xehetasunak ezarri ondoren.

Kreditua itzultzea

Aurreko ekitaldietan gaizki egindako ordainketen itzulerengatik eskuratutako diru sarrerek kredituak gaitzeko aukera emango dute, baldin eta bere garaian gauzatutako gastua xede jakin baterako diru sarrerak zituen kreditu baten kargura egin bazen. Kreditu-gaikuntza lehengo gastuen partida berean erregistratuko da.

PRINCIPIOS GENERALES Y MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS: TRANSFERENCIAS Y REDISTRIBUCIONES

Los créditos que figuren en aplicaciones presupuestarias de gasto se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la que fueron autorizados al aprobarse el presupuesto o al aprobarse las correspondientes modificaciones presupuestarias.

Así mismo, no podrán adquirirse compromisos de gasto por cuantía superior al importe de los créditos aprobados en el estado de gastos del presupuesto.

Con cargo a los créditos del presupuesto de gastos, solamente podrán contraerse obligaciones que se realicen en el año natural. No obstante, se aplicarán a los créditos del presupuesto vigente, las obligaciones siguientes:

- Las que resulten de la liquidación de atrasos a favor del personal que perciba retribuciones con cargo al presupuesto de la UPV/EHU.
- Las derivadas de compromisos de gastos debidamente autorizados en ejercicios anteriores.

Vinculación de créditos

Los créditos de los capítulos II y VI estarán vinculados a nivel de Capítulo dentro de la misma Clasificación Orgánica y Funcional.

En el caso de financiación externa, tanto para la formalización de contratos de PAS y PDI como para la concesión de becas en formación, estarán vinculados, los conceptos económicos de los Capítulos I y IV que recojan esta financiación, siempre dentro de la misma Clasificación Orgánica y Funcional.

MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

Generación de crédito por ingresos

La generación de crédito por ingresos que surjan como consecuencia de la obtención de un crédito no previsto en el presupuesto inicial se plantearán a propuesta de las Orgánicas correspondientes y manteniendo siempre el principio de equilibrio presupuestario:

- Modificación de ingresos: se ejecutará a través de la documentación presentada y en la aplicación presupuestaria de ingresos que considere más adecuada el Servicio de Contabilidad, dependiendo de su naturaleza.
- Modificación de gastos: será la propia Orgánica quien comunique las aplicaciones presupuestarias en las cuales se habilitará el crédito.

El expediente de generación de crédito por ingresos deberá ir acompañado de la documentación (resoluciones, contratos, convenios....) que justifique la necesidad de la modificación.

Trimestralmente se presentará a la Comisión Económica de la UPV/EHU el listado con el detalle de los créditos habilitados.

Transferencias de crédito

1. **Transferencias de crédito entre conceptos de operaciones corrientes y entre conceptos de operaciones de capital** (Procedimiento de trainera: otras transferencias presupuestarias).

Estas operaciones se solicitarán a la Vicegerencia de Contabilidad y Presupuestos a propuesta de las Unidades Orgánicas e irán acompañadas de un informe justificativo del responsable de dicha orgánica.

En aquellos supuestos, que el origen del crédito proceda de una modificación al presupuesto ordenada por un Vicerrectorado o algún órgano de Servicios Centrales, deberá ir acompañada de una autorización del responsable funcional. Se exceptúan de este trámite las siguientes peticiones:

- las solicitudes cuyos funcionales de origen y destino sean el 016 y el 017 (realizarán vía redistribución de crédito)
- las transferencias al capítulo I de la orgánica 3910 y funcionales 011 y 030.

2. **Transferencias de crédito desde operaciones de gasto corriente a operaciones de gasto de capital** (Procedimiento de trainera: transferencias a CG).

En cumplimiento de lo acordado en el Pleno del Consejo Social de fecha 26 de junio de 2006 se distinguen los siguientes tipos de transferencias:

- c) Transferencias por importe inferior o igual a 10.000€.

Estas operaciones se solicitarán a la Gerencia a propuesta de las Unidades Orgánicas adjuntando un informe justificativo. Dicha petición deberá ser aprobada por la Comisión Económica y el Consejo de Gobierno; posteriormente se remitirá al Consejo Social para su convalidación.

- d) Transferencias por importe superior a 10.000€.

Estas operaciones se solicitarán a la Gerencia a propuesta de las Unidades Orgánicas adjuntando un informe justificativo. Dicha petición deberá ser aprobada por la Comisión Económica, el Consejo de Gobierno y finalmente por el Consejo Social.

El plazo para solicitar estas transferencias finaliza el 30 de septiembre.

Se exceptúan de este límite temporal las transferencias de orgánicas con financiación afectada, siempre que sean autorizadas por el Vicerrectorado correspondiente y la orgánica finalice en fecha posterior al 31 de diciembre del ejercicio en curso.

3. **Transferencias de crédito desde operaciones de gasto de capital a operaciones de gasto corriente.**

Deberán seguirse los mismos trámites que en el apartado b) anterior, previa autorización del Gobierno Vasco **El plazo para solicitar estas transferencias finaliza el 30 de septiembre**

Redistribuciones de crédito

Consiste en el trasvase de dotaciones presupuestarias de una o varias unidades a otra u otras dentro de una misma clasificación económica y funcional.

Se utilizará esta figura para dotar de crédito a lo largo del ejercicio a las unidades orgánicas, en aquellos casos, en los que, a priori, se desconoce la cuantía que corresponde a cada una de ellas por estar sujetas a convocatorias, contratos, reparto mediante fórmulas,

Asimismo, se utilizarán las redistribuciones para traspasar créditos de conceptos del capítulo I Gastos de Personal cuya vinculación sea a nivel de capítulo, a conceptos del capítulo II o viceversa.

Los Servicios Generales de Investigación podrán utilizar las redistribuciones denominadas tipo 3 (facturación interna) para cobrar los servicios que prestan a los diferentes departamentos.

Las redistribuciones sólo podrán ser utilizadas por Vicerrectorados, Vicegerencias, Bibliotecas y Servicios centrales.

Incorporación de remanentes

Los créditos pendientes de ejecución correspondientes a proyectos e infraestructura de investigación se incorporarán al ejercicio siguiente como saldos a disposición de las unidades funcionales a las que fueron inicialmente asignados.

Se incorporarán al presupuesto los créditos pendientes de ejecución dotados con recursos externos finalistas.

Asimismo, se incorporarán al presupuesto los créditos pendientes de ejecución correspondientes a gastos que amparen compromisos contraídos (AD) con anterioridad al 1 de diciembre y que por causas justificadas, no hayan podido realizarse. Estas incorporaciones se solicitarán a la Vicegerencia de Contabilidad y Presupuestos, en el plazo que se establezca en la orden de cierre correspondiente

Los remanentes de crédito específicos perderán su condición de específicos al término del ejercicio siguiente al de finalización de la actividad para la que fueron asignados.

Excepcionalmente, podrán incorporarse saldos de crédito para contratos que, sin estar adjudicados, se encuentren en proceso de adjudicación.

El Rector o persona quien designe, procederá a autorizar la incorporación de los remanentes de crédito al presupuesto del ejercicio siguiente una vez establecido el detalle de los mismos.

Reintegros de crédito

Los ingresos obtenidos por reintegro de pagos realizados indebidamente en ejercicios anteriores podrán dar lugar a habilitación de créditos si el gasto ejecutado en su día lo fue con cargo a un crédito dotado con ingresos finalistas. La habilitación de crédito se registrará en la misma partida de gastos que se efectuó anteriormente.